

KEAOREN OHARRA, ERREKURTSO BEREZIA JARTZEKO EPEEI ETA ERREKURTSO HORI EBAZTEKO PROZEDURAREN IZAPIDETZEARI BURUZKOA, MAIATZAREN 5EKO 17/2020 ERREGE LEGE DEKRETUA IKUSITA (17/2020 ERREGE LEGE DEKRETUA, COVID-2019REN ERAGIN EKONOMIKO ETA SOZIALARI AURRE EGITEKO KULTURA ETA ZERGA SEKTOREARI LAGUNTZEKO NEURRIAK ONARTZEN DITUENA).

Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-2019ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko kultura- eta zerga-sektoreari laguntzeko neurriak onartzen dituenak, zortzigarren xedapen gehigarrian ("sektore publikoko erakundeek alarma-egoera indarrean dagoen bitartean egindako kontratazio-prozeduren jarraipena eta hasiera"), honako hau ezartzen du:

"Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duenak, hirugarren xedapen gehigarriaren 4. zenbakian aurreikusitako ondorioetarako, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik, sektore publikoko erakundeek sustatutako kontratazio-prozeduren baldintzen etetea eta epeak etetea kentzea erabakitzen da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan definitutako zentzua, betiere haien izapideak bitarteko bidez egiten badira.

Era berean, aurreko lerrokadan xedatutakoak kontratazio-prozedura berriak hastea ahalbidetuko du, prozedura horien izapideak bitarteko elektronikoen bidez ere egiten badira.

Neurri hori bi kasuetan bidezkoak diren errekurtsu berezietara zabalduko da".

Arau horrek honako ondorio hauek ditu errekurtsu berezia aurkezteko epean eta hura ebazteko prozeduran (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 44. artikulua eta hurrengoak, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora, aurrerantzean SPKL):

1) Errekurtso berezia jartzeko epea

1 a) Eremu objektiboa

Manua kontratazio-prozeduretan sartutako egintza aurkaragarrien aurkako errekurtsu bereziei buruzkoa da soil-soilik, baldin eta honako bi baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Izapideak bitarteko elektronikoen bidez egitea, eta

b) Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak, hirugarren xedapen gehigarriaren 4. zenbakian babestuta ez egotea maiatzaren 7an, jarraipena erabakitzeko, edo maiatzaren 7tik aurrera hastea.

Bi baldintzak betetzen ez dituzten kontratazio-prozeduretan jasotako egintza aurkaragarrien aurka errekurtsu bereziak jartzeko epea KEAOn apirilaren 23ko oharrean azaldutako legeriak arautzen du.

1 b) Epearen zenbaketa

Errekurtso berezia jartzeko epea SPKLren 50. artikulua arautzen du. Hala ere, maiatzaren 6a baino lehen argitaratu, jakinarazi edo ezagutu diren egintza aurkaragarrien kasuan, baldin eta horiek aurkezteko epea erabat amaitu ez bada, zenbaketa maiatzaren 7an hasiko da (17/2020 Errege Lege Dekretua indarrean sartzen den eguna).

2) Errekurtso berezia ebazteko prozedura

KEAOk aurreko 1 a) puntuan adierazitako bi baldintzak betetzen dituzten egintza aurkaragarrien aurkako errekurtsu bereziak ebazteko prozedurak izapidetuko

ditu, SPKLren 56. artikuluan eta oro har aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

3) 2020ko maiatzaren 6ra arte jarritako errekurtsio bereziak ebazteko prozedurak

Aurreko bi puntuetan adierazitakoa alde batera utzita, KEAOk SPKLren 56. artikuluan eta oro har aplikatzekoa den gainerako araudian xedatutakoaren arabera izapidetuko ditu 2020ko maiatzaren 6ra arte ebatzi gabe dauden errekurtsio bereziei buruzko prozedura guztiak, baldin eta baliabide elektronikoen bidez izapidetutako kontratazio-prozedurei buruzkoak badira. Ebazpen hori eman arte legez aurreikusitako izapideak egiteko epeak egun horretatik aurrera hasiko dira berriro.